

I. EUSKALTZAINDIAREN ERREGELA BEREZIAK

*J. A. Arana Martija
J. L. Lizundia*

Egoitza, ordezkari-tza eta bestelako lantaldeen ibilpiderako erregela bereziak

1. Euskaltzaindiak 1981.eko urtarrilaren 24ean Loiolan egindako II. Barne Jardunaldietan onarturiko Barne Erregelen gehigarri-zko artikuluan, Arautegiaren 41. artikuluan agintzen duena kontutan hartuz, egoitza, ordezkari-tza, eta besteen *ibilpiderako* Erregela Bereziak erantsiko zaizkiela esaten da.

2. Bestalde, Barne Erregelen 36. artikulua bere b) lerrokadan Euskaltzainburu-goari ematen dio bulego eta gainontzeko langelen apailatze eta ibilpidearen ardura, "bai Euskaltzaindiaren Etxean eta bai Ordezkari-tzetan ere".

3. Lekarozen 1985.ean, IV. Barne Jardunaldietan, idazkariordetzak euskaltzainburuaren aginduz, aurkeztu zuen *Barne eremu eta zerbitzuen ibilpideaz* izeneko txostena oraingoaren oinarritzat har daitekeena. Gidoia aurre proposamen gisa ontzat eman bazen ere, denbora faltaz azken gaia zelako, ez zen testua eztabaidatu.

4. Lazkaon 1989an egindako VI. Barne Jardunaldietan, Zuzendaritzaren aginduz, berriz aurkeztu zen testu berbera. Beste zenbait gairen artean garatzeko erabakia hartu zen.

5. Ibilpiderako Erregela Berezien beharri-zana luza-ezina gertatzen da, besteak beste, arrazoi hauengatik:

1) Datorren udarako Egoitza berri-an Euskaltzaindiaren zerbitzu nagusi eta arruntak era bat kokaturik geldituko dira.

2) Ordezkari-tzetan egiten eta egingo diren lanak eskatzen duten antolamendu eta lankidekatzea.

3) Egitasmo bereziak, hots, une honetan OEH, EHHA eta Gramatika lankide hitzartu edo bekadunen artekaritza eta erantzunkizuna zuzenki Euskaltzaindiaren esku gelditzea.

4) Herri Agjnteeekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz lau hilabetero lanen eta diru erabilpenen kontu errendatzea.

6. Beraz, honako hau proposatzen da:

6.1. Euskaltzainburuaren gidaritzapean hemen izendatzen den batzordeño suntsikor batek *Egoitza, Ordezkaritza eta bestelako lantaldeen ibilpiderako Erregela Bereziak* izeneko txostena idatz dezala.

6.2. Jarraian, txosten horrek legedi eta Euskaltzaindiaren Arautegiaz aurkakorik izan ez dezan, Batzorde Juridikoak bere aholku irizpena eman dezala.

6.3. Proposamen honen bigarren puntuan aipatu bezala, Euskaltzainburu-
goak azter eta onar dezala.

Ziburun, 1991.eko otsailaren 2an